

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1461

AGINDUA, 2014ko martxoaren 19koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz sail honekin batera lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagokio unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen prestakuntza antolatzea, eta irakasleek irakasle izateko prestakuntza baldintza onetan eta beharrezko kalitatearekin egiteko eskubidea eta betebeharra betetzen direla zaintzea, 2/2006 Lege Organikoaren, maiatzaren 3koaren, Hezkuntzakoaren, 102. artikuluan jasota dagoen bezala. Prestakuntza-prozesu horien azken xedea ikasleak direnez, prestakuntzak zentzua du hezkuntza-sistemaren ekitatearen eta bikaintasunaren onerako den neurrian, eta hezkuntza-sistema horretako erreferentzia ikaslea da, prestakuntzari zentzua eta hezkuntza-esparruari berrikuntza ematen baitizkio.

Horregatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak irakasleak prestatzeko plan bat egin du. Plan horretan, alde batetik, prestakuntza-proposamenak egin ditu, unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan-gaitasuna hobetearren; eta, beste alde batetik, proposatzen du irakasleek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren araberrako prestakuntza etengabea emateko. Alde horretatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak konpromisoa eta ardura hartzeko eskatzen die prestakuntza hartu behar duten irakasleei, eskuratutako jakintza horiek ikasgelako eguneroko lanean isla daitezen, eta ikastetxean inpaktua sor dezaten, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetze aldera.

Plana definitzeko eta, batez ere, plana abian jartzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, bere zerbitzuez gain, zenbait erakundek lagundu eta parte har dezan behar du. Prestakuntzaren arloan aritzeko duten gaitasuna guztiz onartuta izan behar dute erakunde horiek; izan ere, horrek bermatuko du helburuak beteko dituela planak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatu nahi du irakasleen esperientzia abiapuntu duen eta ikastetxeen testuinguruan sar daitekeen prestakuntza praktikoa. Horregatik, prestakuntza-jardueretan proiektu edo jarduera bat egitea, prestakuntzaren baitan, proposatuko zaie irakasle parte-hartzaileei, ikasgelan edo ikastetxean aplikatzeko, eskuratutako jakintzak praktikan jartzeko eta ikastetxean azaltzeko. Eta atzerriko hizkuntzak irakasteko ikastaroetan, adituak ez diren irakasleei bideratuta daudenetan, edukiei lotutako ikaskuntza-metodologia erabiliko da.

Agindu honen bitartez, plan honetan parte hartzeko interesa duten erakunde guztiei egiten diegu dei proiektuak aurkez ditzaten, kontuan hartuz 2014-2015 ikasturteko jarduera-esparruak eta prestakuntza-ikastaro eta ekintzak. Era berean, proiektu horiek aurkezteko mekanismoak eta epeak, proiektuak hautatzeko prozesuak eta hautaketa egiteko organo arduraduna ezarri dira, eta esleipen-irizpideak argitaratu dira. Halaber, prestakuntza-jarduerak zein baldintzatan burutuko diren ere adierazi da.

Hori dela eta, indarreko legediarekin bat, eta 4/2013 Legeak baimendutako kredituen arabera behar adina aurrekontu-zuzkidura dagoenez (4/2013 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena),

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan irakasleak prestatzeko lanetan ari diren edo horrelako lanetan aritzeko prest egongo liratekeen erakunde publiko eta pribatu legez eraturakoei dei egitea, unibertsitatez kanpoko irakasleak Etengabe Prestatzeko Plana garatzeko proiektuak aurkez ditzaten; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan aritzeko proiektuak izan beharko dira.

2.– Helburu hori lortzeko, guztira, 682.249 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura.

3.– Deialdi hau lehiaketa-sistemaren bidez ebatziko da.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Deialdi honen onuradunak izango dira legez eraturako erakunde publikoak eta pribatuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Prest_Gara planaren baitan irakasleak prestatzeko jarduerak egiten dituztenak edo egiteko prest daudenak. Deialdi honen ondoretarako, erakundetzat hartuko dira bakarrik prestakuntza-jarduerak egitea xede duten edo prestakuntza-jarduerak eta beste batzuk xede dituzten diru-irabazi asmorik gabeko federazioak eta elkarteak eta pertsona juridikoak.

3. artikulua.– Erakunde onuradunen baldintzak.

1.– Laguntzen onuradunak izateko, erakunde eskatzaileek ondoko betekizun hauek bete beharko dituzte.

- Agindu honen bidez araututako diru-laguntzen edo laguntzen deialdietan inork ezingo du parte hartu baldin eta zigor-arloko zehapena edo administrazio-zigorra dela-eta diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukera galdu badu edo horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean badago, sexua diskriminatzeagatik zigortutakoak barne, beti ere otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren 4/2005 Legearen arabera eta kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean.

- Erakunde eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta izan behar dituzte.

- Erakunde eskatzaileek zuzen eratuta eta inskribatuta eman beharko dute dagokien erregistroan, eta Ekonomia Jardueretan alta emanda egon beharko dute, prestakuntza-jarduerei dagokien epigrafean.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo erakunde autonomoek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

3.– Laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

4.– Erakunde interesdunek Nafarroako Ogasunean ordaintzen badituzte zergak, zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

5.– Betebehar hauek egiaztatuko dira eskaeran, erantzukizunpeko adierazpen bidez.

- Helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak edo beste baliabide batzuk ez direla jaso adieraztea, edozein administratibotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak.

- Ez dagoela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penal baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik egiaztatzea.

- Egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak adieraztea, eta betetzen dituela diru-laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

6.– Erakunde onuradunak eskubidea du prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauak eskatzen ez dituzten dokumentuak edo jada administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak ez aurkezteko, 30/1992 Legeko 35. artikuluan adierazitakoa oinarri hartuta (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskubide hortaz baliatu ahal izateko, erakunde interesdunek eskaeran adierazi beharko dute dokumentazioa administrazioaren eskuetan dagoela, eta horrez gainera, kasu bakoitzean zer datatan eta zer prozeduratarako aurkeztu ziren ere jarri beharko dute.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Erakunde laguntzaileek lankidetzaproiektu bat edo batzuk aurkez ditzakete, hurrengo ataLEAN adierazten diren multzoetako jarduera bati eta batzuei buruzkoak. Erakunde laguntzaileek behar adina giza baliabide eta antolaketa-baliabide izan beharko ditu, aurkeztu duen lankidetzaproiektuan sartzen diren jarduera guztiak egin ahal izateko.

2.– Prestakuntza-jarduerak multzo hauetan banatzen dira, eta multzo bakoitzak aurrekontuko diru-izendapen hau du:

1.multzoa. Prestakuntza-jarduerak atzerriko hizkuntzetan:

1.1.multzoa. Prestakuntza-jarduerak atzerriko hizkuntzetan, 2014ko udan egiteko: 110.249 euro.

1.2.multzoa. Prestakuntza-jarduerak atzerriko hizkuntzetan, 2014-2015 ikasturtean zehar egiteko: 200.000 euro.

2.multzoa. Unibertsitatetik kanpoko hezkuntza-etapetako irakasleen lan-gaitasunak garatzeko prestakuntza-jarduerak (atzerriko hizkuntzetan direnak izan ezik), Heziketa Zikloetako irakasleenak garatzeko direnak salbu; eta indarreko eskola-curriculumarekin eta Hezkuntza Sailak adierazitako jarduketarekin lotura duten jarduerak.

2.2.multzoa. 2014ko uztailaren 1etik 2014ko urriaren 31ra egiteko prestakuntza-jarduerak: 172.000 euro.

2.1.multzoa. 2014ko azaroaren 1etik 2015eko ekainaren 30era egiteko prestakuntza-jarduerak: 200.000 euro.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatutako jarduera-esparruak eta lau multzoetako jarduera-esparruen ezaugarriak I. eranskinean daude zehaztuta.

4.– III. eranskinean zehazten da zeintzuk diren 1.1., 1.2., 2.1. eta 2.2. multzoetako jarduera zehatzak eta jarduera horiek gauzatu ahal izateko gehien eragiten duten baldintzak; eta lehen-tasunezkotzat joko dira. Erakunde eskatzaileek baldintza zehatzak eskuratu ahal izango dituzte lurralde-ordezkaritzetan eta Euskadi.net egoitza elektronikoa. Hala ere, I. eranskinean adierazitako jarduketa-esparruen baitan beste jarduera batzuk proposa ditzakete erakundeek. Multzo horietako bakoitzaren barruan, III. eranskinean zehaztutako jarduketak egingo dira lehenik, eta ondoren, erakundeek proposatutako jarduerak.

5. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Erakunde interesdunak diruz laguntzea eskatzen den prestakuntza-jarduera bakoitzaren datu teknikoak eta aurrekontu-datuak bete beharko ditu, esteka honetan dagoen aplikazio informatikoa: <http://www.garatuentidadeak.net>

3.– Eskaerak, bana erakundeak lagundu nahi duen jarduera-multzo bakoitzeko, elektronikoki aurkeztuko dira, osorik eta ondo betetako eskabide elektronikoa bidez. Eskabide-eredua egoitza elektronikoa honetan egongo da erabilgarri: https://www.euskadi.net/diruz_laguntza/2014/prest_gara/y22-izapide/eu

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrikoaren, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

5.– Diru-laguntzaren eskaerak ez badaude guztiz beteta, interesdunari hamar laneguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko; halaber, adierazi egingo zaio horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

Prozedura honetako izapide guztiak baliabide telematikoen bidez egin ahal izateko, erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak onartutako edozein ziurtagiri elektronikoa erabil dezakete. Esteka honetan kontsultadaiteke zer ziurtagiri elektronikoa dauden baimenduta: https://euskadi.net/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html

2.– Izapidetze elektronikoa Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bidez eta Informatika eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa -Platea- onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez arautzen da.

3.– Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak zelanegin jakiteko eta ereduak eskuratzeko, jehelbide elektronikoa honetara: https://www.euskadi.net/diruz_laguntza/2014/prest_gara/y22-izapide/eu

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://euskadi.net/misgestiones>.

7. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak.

8. artikulua- Ebaluazio batzordea.

1.– Batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu proposamenak; Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark horretarako ordezeko izendatzen duena izango da batzorde horretako buru, eta beste hauek kide: Hezkuntzako ikuskatzaile nagusia, lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatzeko arduradunak, Irakasleen Hobekuntzarako arduraduna eta, gehienez ere, beste hiru funtzionario Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatutakoak; horietako bat Berritzegune bateko zuzendaria izango da.

2.– Batzorde horrek proiektuak era egokian baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, eta aldaketak proposatu ere bai, aurkeztutako proiektuek ezarritako helburuak betetzen dituztela hobeto bermatzearen.

3.– Batzordeak proposamenak hezkuntzako sailburuordeari helaraziko dizkio.

9. artikulua.– Diru-laguntza emateko irizpideak.

Multzo bakoitzean eskaintzen diren prestakuntza-jarduerak garatzen dituzten lankidetzaproiektuak hautatzeko, II. eranskinean aipatzen diren irizpideei eta baremazioari jarraituko zaie. Horretarako, eskaera guztiak ebaluatuko dira, eta laguntza jaso ahal izateko, II. eranskinean jasotzen den baremoan gutxienez 20 puntu lortu beharko dituzte jarduerak.

10. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Jardueraren gutxi gorabeherako kostuaren % 100 esleitu ahal izango die hautatutako proiektuei Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, gastu onargarrien kontzeptuak (prestakuntza ematen duten irakasleen gastuak, dietak eta joan-etorriak, gastu materialak, eta beste administrazio- eta kudeaketa-gastu batzuk) kontuan hartuta, erakunde laguntzaileak aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

11. artikulua.– Diru-laguntzen bateraezintasuna.

Diru-laguntza hauek jasotzea eta xede bera duen beste edozein laguntza jasotzea ez dira bateragarriak, nahiz iturri publikoetatik nahiz pribatuetatik jaso laguntza.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak 4. artikuluan adierazitako multzoen ebazpenak emango ditu, Ebaluazio Batzordearen proposamenak kontuan izanda, agindu hau EHAA-n argitaratzen den egunetik hasi eta sei hilabeteko epean. Ebazpen horiek elektronikoki jakinaraziko zaizkie interesdunei, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, jende guztiak haien berri izan dezan.

2.– Eskatutako baldintzak betetzen dituen proposamenik ez badago, edo proposamen gutxiegi, eta horren ondorioz agindu honen 4. artikuluan aurreikusitako multzoetakoren bati dagokion zuzkidura agortzen ez bada, Ebaluazio Batzordeak bere esku izango du proposatzea soberakinak beste multzoetako edozeini ematea.

3.– Baldin eta epe horren barruan ez bada ebazpenik ematen, eskabideak ukatu egin direla jo ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Hezkuntza sailburuordeak, ebazpenaren bidez, ondorerik gabe utziko du, irakasleak matrikulatzeko hasierako epea igaro ondoren, aurreikusitako plazen % 40 bete gabe dituzten jardueren proiektuak egiteko proiektuen diru-laguntza. Halakoetan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak jakinarazpena egingo die proiektu horien erakunde onuradunei.

5.– Ebazpenek ez diote amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaie Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteke epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Onartu egin beharko dute emandako diru-laguntza. Alde horretatik, erakunde onuradunek, hamar eguneko epean –deialdiari buruzko ebazpena elektronikoki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera–, berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

2.– Diru-laguntza eman den xederako erabiltzea; hau da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarritako baldintzetan, eta prestakuntza emateko baldintza egokietan egitea prestakuntza-jarduera.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen dieten informazioa, deialdi honen kontura eskuratutako diru-laguntzen gainekoa, eman beharko diete.

4.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

5.– Laguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera aldatu baldin bada, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

6.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari laguntzea ikastaroetara eta/edo prestakuntza-jardueretara bertaratutako irakasleei jarraipena eta ebaluazioa egiten, eta prestakuntza-jarduera osorik eta prestakuntza horrek bertaratutako irakasleen ikastetxeetan zer eragin duen ebaluatzen.

7.– Jarduerak aurrera eraman, edo horien jarraipena eta ebaluazioa egitearen ondorioz sortzen diren datuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ematea, administrazio-kudeaketako behar dituenan.

8.– Emakumezko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunaren inguruan indarrean den arautegia betetzea.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeak.

4.– Diru-laguntzak zatika ordainduko dira, bi epetan.

a) Lehenengo epean diruz lagundutako guztiaren % 60 ordainduko da, eta ordaindu ere ikastaroan onartutako pertsona guztiak kontuan hartuta prestakuntza-jarduera guztiak egin direla bermatzen denean.

b) Bigarren epean gainerako % 40a ordainduko da, 15. artikuluan adierazitako dokumentazioa jaso eta gero.

15. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Artikulu honetan adierazitako egiaztagiriak baliabide elektronikoen bidez aurkeztuko dira <http://www.euskadi.net/misgestiones> web-orrian, artikulu honen bi idatz-zatian adierazitako epeetan.

2.– Diruz lagundutako ekintza bakoitza amaitzen denean, erakundeak agiri hauek bidaliko dizkio Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuari:

a) Hamabost eguneko epean, jardueraren garapenari buruzko akta bat igorriko du. Hau jaso beharko du akta horretan:

- Jardueraren garapenari buruzko balorazio orokorra.
- Irakasle parte-hartzaileen zerrenda. Berariaz adierazi beharko dute irakasle bakoitzaren bertaratze-, partaidetza- eta aprobetxamendu-ehunekoa.
- Egokitzat jotako irakasleen zerrenda.

b) Diruz lagundutako ekintza bakoitza bukatu eta hilabeteko epearen barruan, erakundeak ikastaroan erabilitako ikasmaterialen kopia digitala bidaliko dizkio: apunteak edo inprimaturiko materiala, softwarea, aurkezpenak, tresnak eta ariketak, etab.

c) Erakunde esleipendunak egindako ekintza amaitu eta hiru hilabeteko epean, jarduera egin dela eta diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko jarduketa-memoria igorriko du, bai eta jardueraren gastuen zerrenda sailkatu bat ere. Gastuen zerrendan adierazi beharko dira hartzekoduna, zenbatekoak, eta hasieran aurkeztutako aurrekontuarekiko zer alde dauden.

Emandako diru-laguntzaren kontura egindako gastuak egiaztatzen dituzten egiaztagiriak, fakturak edo dokumentuak eska diezazkioke Administrazioak erakunde onuradunari.

4.– Ezarritako helburuak noraino bete diren egiaztatze aldera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak kasuan-kasuan ezarritako ebaluazio-prozeduren pean egongo dira jarduerak, erakundeek ezarrita dauzkaten barruko ebaluazio-tresnak direnak direla.

16. artikulua.– Laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, jakinarazi egin beharko da eta gerta liteke horren ondorioz diru-laguntza emateko ebazpena ere aldatzea.

17. artikulua.– Arauak ez betetzea.

1.– Erakunde onuradunak emandako eta jasotako zenbatekoa eta horri dagozkion legezko interesak itzuli beharko ditu, honelakoren bat gertatuz gero:

- diru-laguntza zein helburu zehatzetarako eskatu zuen eta esleitu zitzaion, horretarakoxe ez erabiltzea.
- diru-laguntza esleitzeko arrazoi izan zen jarduera ez egitea.
- diru-laguntza berak eskabidean adierazitako helburu jakin eta zehatzetan erabili duela ez justifikatzea.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

- edo, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. tituluan (1998ko urtarrilaren 19ko EHAAn argitaratu zen), Agindu honetan edo diru-laguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.– Diru-laguntzak itzultzeko abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, bidezkoak diren gainerako ekintzak egiteari utzi gabe (698/91 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta haiek itzultzeari buruzko araubide orokorra ezartzen duena, eta haien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, arauak eta betebeharrak xedatzen dituena). Bestalde, horrela itzultitako diru-laguntza guztiak diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

18. artikulua.– Datuak babestea.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoari jarraituz, deialdi hau bideratzean bildutako datu pertsonalak «entidadeak-garatu2012» izeneko fitxategi batean jasoko dira –parte-hartzaileek baimena eman dute datu horiek tratatu eta argitara emateko–. Fitxategi horren xedea da diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta deialdian parte hartzen duten pertsonen deialdiaren garapenaren berri ematea. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honen parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hila-beteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetako 1. artikuluan finkatutako diru-zenbateko osoa handitu ahal izango da, beti ere egin beharreko prestakuntza-jardueren kopurua kontuan hartuta eta baldin eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste diru-laguntza programa batzuetako aurrekontu-zuzkidurak agortzen ez badira. Dena dela, diru-laguntzak ebatzi aurretik egin beharko da hori, eta Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena eman eta EHAAn argitaratu beharko du.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Prozedura-gaietan agindu honek aurreikusten ez duen guztirako azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 19a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

JARDUKETA-ESPARRUAK

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzat, hezkuntza-sistemaren helburua ikasleen erabateko hezkuntza da. Horretarako, oinarrizko konpetentziak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatu behar da, aniztasuna eta gaitasunak behar bezala kudeatuz eta bikaintasunerantz etengabe aurrera eginez. Sistemak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan etengabeko hobekuntza bilatu behar du, bai eta hezkuntza-komunitate osoak prozesu horretan laguntzea ere.

Hori horrela izanik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lehentasunezko ildoak ezarri ditu, eta horietara bideratu behar dituzte ahalegin guztiak hezkuntza-zerbitzuek. Ildook kontuan hartu beharko dira Irakasleen Prestakuntza/Berrikuntza Plana definitzerako orduan.

1. ILDOA: ELEANIZTASUNERANTZ

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek komunikatzeko konpetentzia nahikoak gara ditzaten bi hizkuntza ofizialetan eta hirugarren hizkuntza batean (funtsean, ingelesean). Eta ikasleek garatutako Hizkuntza Komunikazioarako Gaitasun elebidun-eleaniztun hori asertibitatez, egokitasunez eta eraginkortasunez kudeatu dezaten gizarte-testuinguru gero eta anitzagoetan eta konplexuagoetan, izan hemengo gizarte sareetan zein mundu globalizatuan.

- Mundura eta beste kultura batzuetara irekita dagoen euskal gizarte eleanitza sortzeko. Euskararen hizkuntza komuna izango duena; ekitatea, inklusioa eta gizarte-kohesioa areagotzeko.
- Euskararen erabilera zabala eta kalitatezkoa lantzea eta eskaintzea.
- Mugikortasuneko eta kultura-, arte- eta zientzia-trukeko aukera-berdintasuna erraztea.
- Dimentsio europarra integratzea.

Helburuak:

- Trebatzea hizkuntzetan espezialista diren irakasleak metodologia berrietan eta baliabide didaktikoetan, ahozko dimentsioa nabarmenduta, ahozko hizkuntza erabilera-hizkuntza izan dadin, ez soilik ikasketa-hizkuntza.
- Hizkuntzetan espezialista diren irakasleen arteko koordinazioa errazteko beharrezkoa duten aholkularitza ematea.
- Irakasleekin partekatzea ikas-irakas prozesuen jarraipen eta ebaluazioen ondorioak.
- Irakasleak prestatzea egungo ikasleek beharko dituzten komunikazio trebetasun berriak garatzeko. Izan ere, XXI mendeko euskal gazteek hizkuntza-prestakuntza luze-zabalagoa beharko dute; norberaren konpetentzia eleanitzaren kudeaketak eta gizartearen aniztasun eta konplexotasun hazkorrak plantetatuko dizkien erronkei erantzuteko.
- Baliabideak eskaintzea Hezkuntza alorreko eragileei hizkuntzaren erabilera kalitatezkoa, hizkuntza ahularen aldeko jarrera eta jokaera garatzeko.
- Hizkuntzen arteko bizikidetzaren ziurtatzea.

- Atzerriko hizkuntzan espezialistak ez diren irakasleak gaitzea, edukiak hirugarren hizkuntza batean eman ahal izan ditzaten.
- Irakasleen artean europar egitarauen markoaren barne dauden prestakuntza-ekintzetan parte hartzea erraztea.

2. ILDOA: ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestaku ikasle guztiek hezkuntza-komunitatearen barruan daudela senti dezaten, eta beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea, pertsonen eskubideak eta duintasuna errespetatuta. Eta ikasleak prestatzen joatea XXI mendeko (hemengo eta mundu zabaleko) gizarte anitz eta konplexuan duintasunez jasangarritasunaren ildotik bizitzeko.

Helburuak:

- Irakasleen artean Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa (2012-2016) bultzatzea.
- Irakasleei, oro har, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak antzemateko tresnak ematea.
- Irakasle espezialistei eta gainerako hezkuntzako langileei hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak detektatzeari, identifikatzeari eta artatzeari buruzko etengabeko prestakuntza erraztea.
- Irakasleei ikasle ororen, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleena barne, presentzia, parte-hartzea eta lorpena errazten duten ikas-irakas metodologiei eta estrategiei buruzko prestakuntza ematea.
 - Irakasleak ikasgelako liskarren eta jokabide arazo larrien kudeaketan trebatzea.
 - Irakasleei gelan adimen anitzak garatzeko prestakuntza ematea.
 - Ikasleen artean Bake eta Bizikidetzeta Plana (2013-2016) bultzatzea.
 - Irakasleen artean Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa hezkuntza sisteman lan-tzeko gida-plana bultzatzea.
 - Irakasleen artean Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntzarako planean aurreikusitako jarduerak bultzatzea.
 - Irakasleei prestakuntza eskaintzea testuinguru kaltetuetan bizitzeagatik gizarte bazterkeria-
ren arriskuan egon daitezkeen ikasleei behar duten arreta emateko.
 - Irakasleen artean Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015) bultzatzea.
 - Irakasleei bertako zein Europako testuinguruetan bizikidetzaren eta aniztasunaren arretaren arloko esperientzia, proiektu, jakin-nahi eta abarren trukerako espazio bat ematea.
 - Irakasleek eta ikasleek benetako testuinguruetan beharrezkoak dituzten trebeziak garatzeko, mugikortasuna erraztea.
 - Irakasleak prestatzea egungo ikasleei hizkuntza-elkarbizitzarako trebetasunak garatzen laguntzeko. Izan ere XXI mendeko gazteek hizkuntza-elkarbizitza «bestela» garatzeko moduan

egongo dira, eta hizkuntza-elkarbizitzari era konszientez eta ekitatez ekiteko hainbat gizarte trebetasun garatu beharko dituzte (asertibitate, enpatia, elkartasuna...)

- Irakasleak jasangarritasuna, ekitatea, justizia soziala eta elkartasuna bizitzeko kompetentzietan prestatzea.
- Irakasleak prestatzea ikasleak biodibertsitatearen errespetu eta zainketa trebetasunak garatzen laguntzeko, pertsona, kultura eta hizkuntza dibertsitateak, Planetako biodibertsitatearen barne daudela ulertuz.
- Unibertsitateak eta gainontzeko Sail eta eragileekin elkarlanean prestakuntza ekintzak sustatzea.

3. ILDOA: SARE_HEZKUNTZA

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek tresna digitalak eraginkortasunez erabiliz gaitasun digitala eskuratzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko.

Helburuak:

- Irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzen lagun dezaketen tresna digitaletan trebatzea.
- Irakasleei tresna digitaletan ikasgelan erabiltzen den metodologian izan ditzaketen erabilera eta aplikazioen berri ematea.
- Irakasleek material digitalak (dela beren jakintza-arloari buruzkoak, dela prestakuntza edo ebaluaziokoak) sortzea bultzatzea.
- Irakasleek hezkuntza- edo prestakuntza-baliabide gisa interesgarria izan daitekeen edozer material eskura jarri edo kontsultatu ahal izateko espazio bat eskaintzea.
- Euskara teknologiaren arloan erabiltzea erraztea.

4. ILDOA: OINARRIZKO KONPETENTZIEN GARAPENA

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek beren garapen pertsonalerako eta gizarte-kohesiorako oinarritzat definitu diren konpetentziak gara ditzaten.

Helburuak:

- Irakasleei tresnak ematea, ezagutzak eskuratzeko oinarritutako curriculum batetik konpetentzien curriculum batera igarotzea errazteko.
- Irakasleei laguntzea ikasleen oinarrizko konpetentziak hobetzeko proiektuak garatzen.
- Irakasleak trebatzea. ikasleei oinarrizko konpetentziak eskuratzeko edo beren maila hobetzen lagunduko dieten metodologia berrietan edo tresna didaktikoetan.
- Irakasleei, oro har, eta kontsultoreei eta orientatzaileei, zehazki, tresnak ematea, oinarrizko konpetentzia bat edo batzuk hobetzeko zailtasun handienak dituzten ikasleei laguntzeko eta haien jarraipena egiteko.

- Irakasleei bertako zein Europako testuinguruetan oinarrizko kompetentziak eskuratzearen eta hobetzearen arloko esperientziak, proiektuak, jakin-minak eta abar trukatzeko espazio bat ematea.
- Irakasleengan sustatzea jasangarritasuneranzko kompetentzien garapena. paradigma sistemiko baten baitan.

5. ILDOA: BIKAINTRASUNERANTZ PRAKTIKA ONEN BIDETIK

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek kompetentzia pertsonalaren, beren gaitasunarekiko konfiantzaren, lorpenerako motibazioaren, erantzukizunaren eta autonomiaren sentimendua eskura dezaten.

Helburuak:

- Irakasleei tresnak ematea ikasleen kompetentzia pertsonala, lorpenerako motibazioa eta aha-eginaren balorazioa lantzeko.
- Irakasleei laguntza ematea bikaintasunerako berrikuntza-proiektuetan.
- Irakasleak metodologia berrietan edo tresna didaktiko berritzaileetan trebatzea, bikaintasunerako bidean.
- Irakasleei, oro har, eta tutoreei eta orientatzaileei, zehazki, tresnak ematea, zailtasun handienak dituzten ikasleei, alde batetik, eta adimen gaitasun handiak dituzten ikasleei, bestetik, laguntzeko.
- Irakasleei laguntzea egiten dituzten praktika didaktikoetan testuinguru kaltetuetan bizitzeagatik gizarte bazterkeriaren arriskuan egon daitezkeen ikasleek, bikaintasuna lor dezaten.
- Irakasleei ematea jardunbide egokien esperientziak trukatzeko espazio bat.
- Irakasleei ematea jasangarritasun esperientzien trukaketarako espazioa.

2014ko martxoaren 27a, osteguna

II. ERANSKINA BAREMOA

Barematzeko atalak		Gehienez	Orotara
1	Egitura, edukiak eta metodologia		37
	1.1.– Proiektuko edukiak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proposatutako edukietara egokitzea.	6	
	1.2.– Proiektuan zehazten den jardueraren tenporalizazioa eta egitura Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proposatutakora egokitzea.	2	
	1.3.– Proiektuaren metodologia, tresnak, ikasmaterialak eta baliabide didaktikoak jarduerara egokitzea. Metodologia aktiboak, parte hartzaileak, edota teknologia berrietan eta Eskola 2.0ko tresnetan oinarritutakoak erabiltzea.	10	
	1.4.– Jarduerarako Sailak proposatutako helburuak zer neurriraino bete diren ebaluatu aldera, proiektuaren zehaztasun- eta egokitasun-maila (ebaluazioaren planteamendua, irizpideak eta adierazleak)	6	
	1.5.– Prestakuntza egitekoak betetzeko eta irakasleek lan egiten duten ikastetxeetan inpaktua sortzeko proiektuaren egokitasun-maila	6	
	1.6.– Proiektuaren lanbide-proiektzioa eta ikasgelan aplikatzea: zein lanbide-gaitasunak hobetu nahi diren zehaztu eta jorratzen diren edukiak nola aplikatu daitezkeen ikasi-irakatsi egoeretan.	6	
	1.7.– Programako edukiak genero-ikuspegira egokitzea	1	
2	Entitatearen eta eskolak ematen dutenen esperientzia proiektuaren esparruan eta prestakuntzan		20
	2.1.– Erakundearen esperientzia aurkezten duen proiektuaren edukien esparruan eta prestakuntza-jardueretan (prestakuntzan esperientzia, eginiko ikerketak, ponentziak, argitalpenak...)	10	
	2.2.– Proiektua egiteko eskainitako giza baliabideak (ibilbide profesionala, irakaskuntzan eskarmentua, ikerketak, argitalpenak...)	10	
3	Proiektuaren kostu garbia, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aurrez ikusitako aurrekontuarekin alderatuta		18
Guztira			75

2014ko martxoaren 27a, osteguna

III. ERANSKINA

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
	1.1 Multzoa			
701	Language for teachers with A1 certificate	15	I	2
702	Language for teachers with A1 certificate	15	I	2
703	Language for teachers with A1 certificate	12	I	1
704	Language for teachers with A1 certificate	15	I	3
705	Language for teachers with A1 certificate	15	I	3
706	Language for teachers with A2 certificate	15	I	2
707	Language for teachers with A2 certificate	15	I	3
708	Language for teachers with A2 certificate	15	I	3
709	Language for teachers with A2 certificate	12	I	1
710	Language for teachers with B1 certificate	15	I	2
711	Language for teachers with B1 certificate	15	I	2
712	Language for teachers with B1 certificate	15	I	3
713	Language for teachers with B1 certificate	15	I	3
714	Language for teachers with B1 certificate	12	I	1
715	Language for teacher with B2 certificate	15	I	2
716	Language for teacher with B2 certificate	15	I	2
717	Language for teacher with B2 certificate	15	I	3
718	Language for teacher with B2 certificate	12	I	1
719	Effective English teaching	20	I	2
720	Deutschkurs (B2)	15	A	2
721	Cours de Français (B2)	15	F	2
	1.2 Multzoa			
200	Language for teachers with A1 certificate	12	I	1
201	Language for teachers with A1 certificate	15	I	2
202	Language for teachers with A1 certificate	15	I	2
203	Language for teachers with A1 certificate	15	I	2
204	Language for teachers with A1 certificate	15	I	3
205	Language for teachers with A1 certificate	15	I	3
206	Language for teachers with A1 certificate	15	I	3
207	Language for teachers with A2 certificate	15	I	2
208	Language for teachers with A2 certificate	15	I	2
209	Language for teachers with A2 certificate	12	I	1
210	Language for teachers with A2 certificate	15	I	3
211	Language for teachers with B1 certificate	15	I	2
212	Language for teachers with B1 certificate	15	I	2
213	Language for teachers with B1 certificate	15	I	3
214	Language for teachers with B1 certificate	15	I	3
215	Language for teachers with B1 certificate	12	I	1

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
216	Language for teachers with B1 certificate	15	I	2
217	Language for teacher with B2 certificate	12	I	1
218	Language for teacher with B2 certificate	15	I	3
219	Language for teacher with B2 certificate	15	I	3
220	Language for teacher with B2 certificate	15	I	2
221	Language for teacher with B2 certificate	15	I	2
222	Language for teacher with B2 certificate	15	I	2
223	Language for English teachers	12	I	1
224	Language for English teachers	15	I	3
225	Language for English teachers	15	I	2
226	ICT for language learning on-line	25	I	4
227	ICT for language learning on-line	25	I	4
228	ICT for language learning	20	I	2
229	Effective English teaching	20	I	3
230	Effective English teaching	20	I	2
231	Creative English	20	I	2
752	Talk English	20	I	3
753	Talk English	20	I	2
788	Oral skills in secondary	15	I	3
789	Oral skills in secondary	20	I	2
904	CLIL with B2 certificate	20	I	2
905	CLIL with B2 certificate	15	I	3
	2.1 Multzoa			
740	Haur Hezkuntza. Artea esperimendazio iturri	15	E	4
741	Heziketa emozionala Haur Hezkuntzan	15	E	4
742	Ikasten kooperatu-Kooperatzen Ikasi. Ikasketa kooperatiboak HHn	15	E	4
743	Proiektuak nola landu Haur Hezkuntzan	15	E	4
750	Arreta Goiztiarra	50	E	4
751	Psikomotrizitatea ikasgelan	20	E	2
754	Tutoretza lana Lehen Hezkuntzan	25	E	3
755	Bibliotecas escolares: El relato oral. Como narrar dotando de vida a las imágenes creadas	20	C	2
756	Bibliotecas escolares: Técnicas de dinamización lectora y escritura creativa	20	C	3
765	Scratch Lehen Hezkuntzan eta DBH 1. zikloan	15	E	3
780	Coaching Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan	20	E	2
781	El cine documental en la clase de Ciencias Sociales	15	C	2
782	Gizarte Zientziak arloko klaseak emateko IKTKo tresnak	20	E	4
783	Matematika aberatsa gelan, Wiris eta Wirisquizzes	15	E	4
784	Memoria-historikoaren lanketa DBHn; proiektuetan oinarritutako ikaskuntza metodologiaren bidez	15	E	3
785	Microbiología práctica: actividades de laboratorio	20	C	2
786	Microbiología práctica: actividades de laboratorio	20	C	1
787	Mikrobiologia praktikoa: laborategirako jarduerak	20	E	3

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
790	Organizadores gráficos para aprender a aprender	20	C	2
791	Trabajos prácticos en el aula y en el laboratorio de física	15	C	2
792	Zientzia Bigarren Hezkuntzan: Ikerketa-Proiektu baten gauzapena	10	E	3
900	Adimen gaitasun handiko ikasleei erantzuna eskola inklusiboan	50	E	4
901	Asperger Sindromea: esku-hartzerako tresnak etapa ezberdinetan	30	E	2
902	Baloretan oinarritzen den hezkuntza : giza eskubideak eskola demokratikoan	30	E	1
903	Blogekin lehenengo pausoak Hizkuntzen geletan	25	E	4
906	Edmodo: ikasgelarako sare soziala	25	E	4
907	Educación Física con el alumnado con discapacidad desde una perspectiva inclusiva	30	C	2
908	El Entorno Personal de Aprendizaje (PLE) como base de trabajo con las TIC en un aula inclusiva	50	C	4
909	Galerak eta dolu-prozesuak ikastetxearen testuinguruan	25	E/C	2
910	Galerak eta dolu-prozesuak ikastetxearen testuinguruan	25	E/C	1
911	Giza eskubideetan hezten: jarduera praktikoak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan	15	E	1
912	GPS: baliabide didaktikoa	30	E	4
913	Herramientas digitales para la enseñanza de las ciencias	30	C	3
914	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo	20	C	1
915	Jendearen aurrean hitz egin	25	E	2
916	Kulturartekotasuna: pentsatu, sentitu eta egin	30	E	2
917	Musicosophia	15	E/C	2
918	Norberaren ikaskuntzarako ingurune pertsonalizatua (PLE) sortu, gaitasun digitalak garatzeko	25	E	4
919	Prevención de conflictos interculturales en el aula	30	C	2
920	Sare Sozialak: berdinen arteko tratu onak eta genero berdintasunerako tresna. Aukerak eta arriskuak	30	E	1
921	Sare Sozialak: berdinen arteko tratu onak eta genero berdintasunerako tresna. Aukerak eta arriskuak	30	E	3
922	Sare Sozialak: berdinen arteko tratu onak eta genero berdintasunerako tresna. Aukerak eta arriskuak	30	E	2
923	Técnicas activas de conducción grupal	15	C	2
980	Herramientas Web 2.0 para la enseñanza de personas adultas	25	C	4
981	Herramientas 2.0 para el ámbito de comunicación de EPA	25	C	4
	2.2 Multzoa			
010	Haur Hezkuntzako Matematikaren didaktikan eguneratzen elkarrekin	15	E	4
011	Hezkuntza afektibo sexuala Haur Hezkuntzan	18	E	3
012	HH etapako ikasleen garapen psikologikoa.Ezaugarriak, horiek baldintzatzen eta eskaintzen dituzte	15	E	4
013	Adimen anitzak Haur Hezkuntzan	15	E	4
014	Natur txangoak eskola inguruan urtaro guztietan	15	E	3
015	Sormena garatzeko ikusmen- arteko tresnak	20	E	2
050	Actividades didácticas para utilizar el blog en las aulas de Lenguas	25	C	4
051	Adimen anitzen teoriaren aplikazio praktikoa	25	E	2
052	Jolasen bidez irakatsi: jarduera ludikoen didaktika	25	E	1
053	La respuesta al alumnado con dificultades específicas de aprendizaje (dislexia y discalculia)	30	C	2
054	Matematika eskura	15	E	3
055	Web 2.0 baliabideak Lehen Hezkuntzako geletan erabiltzeko	25	E	4

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
056	Lo que nos cuentan los cuentos. Educar en valores a través de la creatividad	25	C	1
100	Adimen emozionala ikasgelan	25	E	3
101	Arbela Digitalaren erabilera praktikoa	25	E	2
102	Arte hezkuntza garatzeko estrategiak	20	E	2
103	Bigarren hizkuntzen ikaskuntza kulturarteko testuinguru inklusiboan	25	E	2
104	Denboraren kudeaketa: hezkuntza praktika hobetzeko baliabidea	25	E	4
105	Hezkuntza afektibo sexuala Lehen Hezkuntzan	20	E	2
106	Hezkuntza afektibo sexuala Lehen Hezkuntzan	15	E	1
107	Kantua Musika gelan: kantagintza lantzeko baliabideak	15	E	2
108	Kulturartekotasuna landu ipuinen bidez	25	E/C	2
109	Las actividades físicas cooperativas	20	C	3
110	Música y movimiento: la rítmica Dalcroze	15	E/C	2
111	Nola erabili Moodle geletan, PBL edo problemetan oinarritutako metodologiekin	25	E	3
112	Nola erabili Moodle geletan, PBL edo problemetan oinarritutako metodologiekin	25	E	2
113	Problema ebazten kalkulagailuz eta kalkulu orriaz lagundurik	15	E	3
114	Rezikletas: recursos para la educación musical	15	C	3
115	Scratch Lehen Hezkuntzan eta DBH 1. zikloan	15	E/C	2
116	Web 2.0 Musika gelan	30	E	4
117	Zientzia Lehen Hezkuntzan: ikerketa-proiektu baten gauzapena	15	E	4
150	Antzerki-foroa, gatazkak eraldatzeko tresna.	30	E	3
151	Antzerki-foroa, gatazkak eraldatzeko tresna.	30	E	1
152	Arduino plaka programatzeko tailerra	15	E	2
153	Arte Garaikidea: mugimendu, korrante eta joerak ulertzeko gakoak	15	E	2
154	Aspectos fundamentales de las Matemáticas del Bachillerato para abordar con éxito una ingeniería	15	C	4
155	Construcciones matemáticas dinámicas con Geogebra	15	E/C	3
156	Educación afectivo-sexual en Educación Secundaria	20	C	2
157	Educación afectivo-sexual en Educación Secundaria	18	C	3
158	Estrategias didácticas para la enseñanza del Dibujo	15	C	2
159	Experimentación en Física y Química en el aula y en el laboratorio	20	E/C	3
160	Gaur egungo munduaren historia 1945-2013	15	E	2
161	Geologia praktikoa	12	E	8
162	Geometria 2D eta 3D SketchUp-ekin	15	E	4
163	Kimikako hainbat saikuntza deigarri konpetentzia zientifikoa garatzeko	15	E/C	2
164	Kultur ondarearen didaktika	20	E	3
165	La acción tutorial en la escuela inclusiva	18	C	1
166	MMM Matemáticas, Moodle y Multimedia	15	C	3
167	Nanotecnología: el gran reto de lo pequeño	20	C	3
168	Oinarrizko gaitasunak garatzea esperientziaz zientifikoaren bidez	20	E	8
169	Portaera erregulatzeko arazoak dituzten ikasleekin esku-hartzea	25	E	3
170	Portaera erregulatzeko arazoak dituzten ikasleekin esku-hartzea	25	E/C	2
171	Procesos de creación. Arte y cultura visual	15	C	2

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
172	Técnicas de creatividad y metodología Lego Serious Play en la enseñanza artística	16	C	2
173	Testu literarioak lantzeko estrategiak eta baliabideak	25	E	2
174	Zinea, elkarbizitza bultzatzen duten baloreak lantzeko tresna	30	E	3
250	Adimen emozionala eta aldaketaren kudeaketa zure lanpostuan	20	E	3
251	Adoptatutako haurrak eskola inklusiboan	30	E/C	1
252	Adoptatutako haurrak eskola inklusiboan	30	E	3
253	Aprendizaje dialógico en la sociedad de la información	20	C	2
254	Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleei erantzuna eskola inklusiboan	50	E	4
255	Baliabide teknologikoen erabilera Gorputz Hezkuntzan	20	E	4
256	Claves para la superación de las barreras para la participación y el aprendizaje del alumnado gitano	20	C	2
257	Claves para la superación de las barreras para la participación y el aprendizaje del alumnado gitano	18	C	3
258	Colaboración de profesores de Matemáticas en la Nube	15	C	4
259	Construyendo juntos el site del profesor de Matemáticas	15	C	4
260	Ebaluzio psikopedagogikoa eskola inklusiboan	18	E	3
261	El impacto de las nuevas tecnologías en las dificultades de aprendizaje	50	C	4
262	El profesorado emocionalmente competente	30	E/C	2
263	Emakumeen kontrako biolentzia prebenitzea , detektatzea eta aurre egitea	20	E	2
264	Eskola mistoa ez da nahikorik: hezkidetzarako klabeak	15	E	1
265	Flipped classroom Matematikan	15	E	4
266	Genero-biolentzia detektatu eta aurre egin	18	E	3
267	Genero-biolentzia detektatu eta aurre egin	15	E	1
268	Geogebra online	15	E	4
269	Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: ikasketa eta zerbitzu solidarioa	15	E	3
270	Google Earth eta Google Maps, Zientzia hezkuntzarako tresna didaktikoak	30	E	4
271	Herri-dantzak Gorputz Heziketan	20	E	1
272	Hezkidetzak kultur anitzeko ikastetxeetan	20	E	2
273	Hezkidetzak kultur anitzeko ikastetxeetan	18	E	3
274	Ikasleen testuak hobetzen. Estrategiak eta baliabideak	25	E	2
275	Ikasteko estrategiak hobetzea	18	E	2
276	Ikasteko estrategiak hobetzea	18	E	3
277	Ikastetxearen ebaluazioa, hobekuntzarako abiapuntu	25	E	2
278	Ikastetxeko Web ataria eta Intraneta (Liferay + Alfresco)	20	E	4
279	Inteligencia emocional y gestión del cambio en tu puesto de trabajo	20	C	2
280	Intervención con familias: alumnado con Necesidades Educativas Especiales	30	C	3
281	Irakurketa erraza	30	E/C	2
282	Irakurketa erraza	30	E	3
283	Komunikazioa eta giza harremanak lanean	25	E	1
284	Kulturarteko gaitasuna garatzeko hezkuntza-estrategia arrakastatsuak	25	E	3
285	La organización del entorno educativo del Aula Estable	30	C	2
286	Laneko gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea	20	E	3
287	Laneko gatazkak ikaskuntza-aukera bihurtzea	20	E	2

2014ko martxoaren 27a, osteguna

Kod	Ikastaroak	(1)	(2)	(3)
288	Matematika interaktiboak	15	E	4
289	Mintzamena eta ahozko elkarreragina lantzeko gelako estrategiak eta baliabideak	25	E	3
290	MM,Matematika eta Moodle	15	E	4
291	Nola lagundu ikasleei testuak ulertzen	25	E	2
292	Norberaren ikaskuntzarako ingurune pertsonalizatua (PLE) sortu, gaitasun digitalak garatzeko	25	E	4
293	Pertsonen lidergo eta zuzendaritza	25	E	3
294	Supervisión de casos para mejorar la tarea laboral	15	C	3
295	Técnicas activas de conducción grupal	15	C	1
296	Zeinu Hizkuntza III.maila	30	E/C	2
500	Moodle avanzado para profesores de EOI	25	C	2
550	Análisis especializado en obras para piano: de Bach a Bartok I	15	C	2
551	Finale: edición de partituras	15	C	3
552	Haur eta nerabeen ahotsa: hizkuntza musikalaren eta koruren klaseetako baliabideak	15	E	3
553	Herri-dantzak	15	E	2
554	Museshcore: partituren editore askea eta eramangarria	20	E	4

(1)	Postu kopurua
(2)	Hizkuntza: E = Euskara, C= Gaztelania, E/C= Euskara eta gaztelania, I=Ingelesa, A= Alemana, F= Frantsesa
(3)	Lekua: 1= Araba/Alava, 2= Bizkaia, 3= Gipuzkoa, 4= On-line; 5= Erresuma Batua/ Irlanda, 6= Frantzia, 8=EAE ; 9= Suiza